





Jasone Razkin, Eider Razkin eta Oihana Aldabe. JULEN SOTO SATRUSTEGI

"Musika asko baloratzen du Pirinioetako jendeak"

OIHANA ALDABE LAZKOZ ETA EIDER ETA JASONE RAZKIN LAZKOZ MUSIKA IRAKASLEAK
Hiru lakuntzarrak Pirinioetaraino joaten dira musika irakastera. Haien ibileren berri eman dute

Julen Soto Satrustegi LAKUNTZA
Oihana Aldabe Lazkoz eta Eider eta Jasone Razkin Lazkoz musika irakasle lakuntzarrak dira, Nafarroako hirugarren handiena den Orreaga musika eskolako irakasleak, hain zuzen. Zazpi ibarretan barrena ibiltzen dira musika irakasten, eta bakarrak dira Nafarroako Pirinioetaraino joaten direnak. Han bizimodua ezberdina dela argi utzi dute eta hainbat erronka eduki dituzte bai musika arloan lan egiteagatik, bai elkarren artean nahiko ezberdinak diren girotan mugitzeagatik.

Musika irakasleak zarete. Betidanik gustatu zaizue musikaren mundua? Nola bukatu duzue horretan lanean? Oihana. Tronpetako ikasketak bukatu nituen eta Lakuntza musika eskolatik deitu zidaten lan egiteko. Haur txikiekin hasi nintzen. Bi urtetara edo, Garraldako musika eskolatik deitu zidaten. Musika ikasketekin lanean ohikoena irakasle izatea da, eta nik urte asko daramatzat klaseak ematen.

Jasone. Nik kontserbatorioan pianoa ikasi nuen, eta gero magisteritza. Ikasketak bukatu eta berehala Oihanak pianoko irakasle bat behar zutela esan zidan, eta txikiekin eta pianoarekin hasi nintzen. Orain ere korroa, pianoa eta hizkuntza musikala ematen, zortzi bat urtetik.

Eider. Lakuntzako musika eskola eta kontserbatoriotik pasa ondoren, duela hiruzpalau urte Orreaga musika eskolan hasi nintzen, hasieran klase bakar batekin, ondoren txikiekin, eta gero instrumentua irakasten ere. **Hiruak lakuntzarrak izanda, nola bukatu duzue Pirinioetan?**

O. Orreaga musika eskola pixka bat berezia da, zazpi udal edo ibar daude sartuta: Luzaide, Auritz, Erroibar, Artzibar, Esteribar eta Berriobeiti, bost zentrotan banatuta daudenak, Garraldako Orreaga eskolan, Artikako kultur etxean, Zubiriko eskola publikoan, Ollokiko gizarte etxean eta Auritzberriko kontzejuan. Musika eskola osoko matrikula-zioak ikusten ditugu irakasleek

eta horren arabera moldatzen du astea irakasle bakoitzak. Nik, adibidez, tronpeta eta gaita irakasten dut, eta 20 urte baino gehiago daramatzat astelehenero Garraldara eta asteartero Zubirira joaten. Duela zortzi urte Berriobeiti ere sartu zen musika eskola honetan.

J. Ni bi eguerditan Zubirira joaten naiz, astearte eta ostegunetan, eta gainontzeko arratsaldeak Artikan ematen ditut.

E. Astearte eta ostegun eguerditan Zubirira joaten naiz ahizparekin, astelehen eta asteartetan Ollokira, eta asteazken eta ostegunetan Artikan.

Joan etorrian ibiltzen zarete eguero edo han gelditzen zarete?

O. Beti joan etorrian ibiltzen gara. Garraldara, Aezkoa, Artzibar, Erro, Luzaide, Auritz edota Aurizberriko haurrak joaten dira. Guk ordubeteko bidaia dugu, eta joan beharko garen irakasleen artean kotxea partekatzen dugu. Garraldara joaten garenok txandak egiten ditugu. Aurten, adibidez, bi autotan joaten gara Garraldara, 6-7 irakasle gara eta. Baina denetatik egin dugu. Batzuetan tokatu izan zait irakasle bat Auritzera eramatea, hortik gero ni Garraldara joatea eta itzultzerakoan bere bila pasatzea, eta hurrengo astean kontrakoa, berak niri nonbait uztea eta gero nire bila itzultzea. Kontua da egun batean Garraldan egiten duzula lan, baina hurrengoan agian Zubirira joan behar zarela.

Irakasle gehienak kanpokoak zarete edo Pirinioetakoak ere badaude?

O. Gehienak Iruñekoak. Baina bi irakasle Aurizberrikoak dira, ama eta alaba. Han bizi dira eta Garraldan egiten dute lan. Beraiei kontrakoa gertatzen zaie, Artikara jaitsi behar izaten dira tokatzen zaienean.

J. Beraiek autoa partekatzen dute, nik Eiderrekin bezala, ahizpak garelako. Nahiz eta bat Ollokin egon eta bestea Artikan, bata besteari itxoiten dio eta batera itzultzen gara.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea • Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



Aldaketa handia dago han musika erakustearen edota hemen egitearen artean?

O. Ez dauka zerikusirik, han beste erritmo batean bizi dira. Adibidez, elurra egiten duenean, beraiek deitzen digute ez etortzeko esanez, elur asko dagoelako eta badaezpada. Hala ere, haurrek ez dituzte jarduera asko musika eskolaz kanpo, nahiz eta orain pilota eskola ere badagoen. Orduan, jende askok ematen du izena musika eskolan, baina beste erritmo batean bizi dira. Familia guztiak dira oso jatorrak, baina ezberdinak. Artikan, adibidez, klase bat galtzen badute zergatik ez dagoen edo galdetzen dute, gauzak askoz gehiago begiratzen dituzte; Pirinioetan ezin bagara klasea ematera joan lasai hartzeko esaten digute. Aurizberrikoak Garraldara musika eskolara joateko, gurasoek hileroko auto txandak egiten dituzte, egutegi bat daukate. Ikusten da familien artean harreman handia daukatela, eta hori Artika bezalako leku handietan ez da gertatzen. Artikan Iruñeko eskola guztietako ikasleak ditugu, eta beraien artean batzuk eta besteak ez dute elkar ezagutzen, baina han goian denak ezagun dira.

J. Herriak txikiagoak dira, klima ezberdina, eta beste bizimodu lasaiagoa daukate.

E. Pirinioetan ere elkarren artean gehiago ezagutzen dira. Artikan, adibidez, hainbat eskoletako jendea dago, ez dute hainbeste elkar ezagutzen. Taldea anitzagoa da.

Elurra egiten duenean ez duzue online klaseak egitea planteatu?

O. Nik online klaseak gorroto ditut. Normalean beti iristen gara Garraldara. Beraiek ez etortzeko esanez deitzen ez badigute, gure lana den heinean, beti joaten gara. Hala ere, badaukagu elurretako protokoloa. Haurrak eskolatik musika eskolara joaten dira zuzenean, arratsalde guztia Garraldan egonez, beraien herriatik denbora guztian bueltaka ez ibiltzearren. Elur asko dagoela ikusten badute, gurasoek eskolara deitzen dute eta haurrak autobusez bidaltzen dituzte etxera eskola bukatu orduko, musika eskolara joan gabe. Halakoetan, gu 19:30ean bueltatzen gara badaezpada, errepideagatik.

J. Orain ikasi dugu online klaseekin moldatzen, koronabirusagatik, eta ezin badira klaseak zuzenean eman, agian planteatu dezakegu elurra dagoenean.

Euskaraz irakasten duzue?

O. Bai, han bakarrik D eredua daukate, dena euskaraz, bai Aurizberriko eskolan, bai Garraldako eskolan, baigainerakoetan. Artikan, aldiz, ezberdina da, jende gehiago baitago. Kurtso berdinean adibidez, hiru gela ditugu, eta gehienetan bi euskaraz eta bat erdaraz izaten da.

J. Gertatzen dena da 21 irakasleetatik euskaraz bakarrik bost edo seik dakigula. Irakasle askok urte asko daramatzate eta ez dira euskaldunak. Dena den, irakasleak berritzaile orduan euskaraz dakitenak hartzen saiatzen dira. Baina zaila da, musika irakasle izatea eta euskara, antza denez, ez daude oso lotuta. Guk posible dugunean euskaraz egiten dugu, Pirinioetan, beti. Artikan ere euskaldun kopurua igo da. Ni txikiakin hasi nintzenean maila berdinean euskarazko ikasgela bat eta gaztelaniazko beste bat zeuden, eta orain gehienetan bi ikasgela daude euskaraz eta bat gaztelaniaz. Euskaldun gehiago apuntatu dira. Hala ere, instrumentuak erakusterakoan ezberdina da. Azken finean irakasleak instrumentu batean edo bestean daude espezializatuta, eta hortaz euskara ez badaki gaztelaniaz ematen du. Gu ere saiatzen gara hizkuntza musikalean euskaraz dakitenak euskarako taldean sartzen. Orokorrean irakasleak ere saiatzen dira euskaraz egiten.

Nolakoa da hango musika eskola?

O. Gure musika eskola hainbeste herritaraino iristen da, herri horietako eskolak aprobetxatzen ditugulako. Guk ez ditugu eraikin berriak sortu. Berribeitin, adibidez, itxita zegoen kultur etxe bat aprobetxatu genuen, baina Pirinioetan eskoletan ematen ditugu klaseak. Garraldan eraikin handi bat dago, goizetan eskola eta arratsaldetan musika eskola bihurtzen dena. Erroko eskolan ere eman ditut klaseak, eta Auritzeko eskolan... Nafarroa erdiko eskoletako giltzak ditut. Honek musika eskola merkeagoa izatea egiten du, bai matrikula bai gastuak txikituz, guk ez baitugu eraikin bat alokatzen, dau den baliabideak aprobetxatzen ditugu. Zuzendari eta garbitzaileekin hitz egiten dugu, eta beraiek esaten digute zer gela erabili edota gauzak non gorde ditzakegun. Irailean gela bat hartzen dugu eta hor gordetzen ditugu gauzak. Adibidez, Zubirin

gela batean piano bat daukagu, eta beste gela batean bateria bat. Garraldan gauza bera, jantokia eta dena erabiltzen dugu. Garbitzaileekin asko hitz egiten dugu beraiek eskola arratsaldean garbitu behar dutelako. Zein gelatan zein ordutaraino egongo garen esaten diegu, horrela beraiek beste guztia garbitu, eta azkeneko momentuan erabili ditugun gelak garbitzen dituzte.

J. Olokin, adibidez, duela gutxi kultur etxe bat egin zuten eta orain hor ematen ditugu klaseak. Horren aurretik, haur eskola batean ematen genituen, eta han ibiltzen ginen sehaskak kentzen, pianoa ateratzen... kultur etxe hori behingoz egin zuten arte.

Uste duzue musika ikasketak baloratzen direla?

O. Ez. Eskoletan garrantzia kentzen diote musikari, eta haurrak hori barneratzen du. Hau gizarteak artea edo kulturari garrantzia ematen ez diolako gertatzen da. Kulturari ez badiozu garrantzia ematen eta haurrek ez badute sentitzen musika matematika bezain garrantzitsua dela, azkenean hori barneratzen dute. Nik kontserbatorioan ikasi eta titulua lortu nuen, eta badago

"PIRINIOETAN OSO DESBERDINA DA. EZ DAUKA ZERIKUSIRIK, HAN BESTE ERRITMO BATEAN BIZI DIRA"

"IRAKASLEAK BERRITZERAKO ORDUAN EUSKARAZ DAKITENAK HARTZEN SAIATZEN DIRA"

"HERRIETAKO ESKOLAK APROBETXATZEN DITUGU. GUK EZ DITUGU ERAIKIN BERRIAK SORTU"

"HAURREK EZ DUTE SENTITZEN MUSIKA MATEMATIKA BEZAIN GARRANTZITSUA DELA"

jendea esan zidana: “hori bakarrik ikasi duzu? Ez zara unibertsitatara joan?” Gizarte bezala bakarrik gauza batzuk baloratzen ditugu, eta nahiz eta haurren batek artean erraztasuna eduki ez da trebetasun hori behar bezala baloratzen. Musikan ikasten dena, adibidez, ezin da beste ezertan ikasi. Taldean lan egiten ere ikasten da, kirolean bezala. Banda batean parte hartzean denak dira garrantzitsuak, bonboa jotzen duena gitarra jotzen duena bezain beharrezkoa baita. Batak besteari entzuten ikasten dute, oso kooperatiboa da.

J. Garunarendako eta hezteko orduan musika bezalako ikasgai artistikoak oso garrantzitsuak dira. Musika eskolara etortzen diren haurrak suposatzen da nahi dutelako etortzen direla, ez eskolan bezala agian ikasgai batzuk egitera behartuta sentitzen direla. Hortaz, suposatzen da gehiengo musika gustatzen zaiolako etortzen dela, baina denetatik dago.

Desberdintasuna dago Pirinioetan edo Iruñerrian nola baloratzen den musika?

O. Ez. Pirinioetan garrantzi handia ematen diote musika eskolari, baina ez dagoelako ezer gehiago. Asko eskertzen dute gu haraino joatea, jarduera bat edukitzea. Beraieendako oso garrantzitsua da egiten dugun ahalegina, beraz, beraiek ere egiten dute. Han familiek musika eskolarekin harreman oso estua dute.

J. Eskertzen dute han musika eskola egotea. Gainera, hainbat ekitalditan ere parte hartzen dugu, herriko festetan edo Korrika bezalako egunetan.

Oihana, gaitaria ere bazara, nolaz? Kontserbatorioan nengoela, 18 urterekin gaita ikastera apuntatu nintzen. Tronpetak jada jotzen nuen, baina gaita ere asko gustatzen zitzaidan. Hortik bi urte ingurura, elkarte bat sortu zen Iruñean, bertan sartu nintzen, eta gaur egun arte urte asko daramatzat gaita jotzen. Berriozarko konpartsan jo dut, Lakuntzakoan ere, eta Iruñekoan. Hasieran Iruñeko konpartsan kolaborazioak egiten nituen, baina batek utzi zuen, eta ni ofizialki sartu nintzen. Milaka konpartsa daude Euskal Herri osoan, baina Iruñeko konpartsa bezalakorik ez dago. Erraldoiak oso zaharrak dira, tradizio handia dago, gainera sanferminak. Niretako konpartsa garrantzitsuena da, eta gainera ez da ba-

karrik konpartsa, gehiago ere bada. Eta Lakuntzako eskolan nengoen gaitako klaseak ematen eta erraldoi eta buruhandiak egin behar zituztela esan zidaten; horrela, konpartsa sortu eta sartu nintzen, duela ia 20 urte. Niretako Lakuntzako konpartsa arazo handiena ez da musika, baizik eta ez dagoela jendea erraldoiak ateratzeko. Belaunaldi txanda behar da, urte askoz daramatelako pertsona berak, eta ez dago jende berririk.

Eider eta Jasone, organoa jotzen duzue Lakuntzan. Nola bukatu zenuten horretan?

E. Gure osaba Luis Marik mezan jotzen zuen, baina batzuetan huts egiten hasi zen. Guk pianoa jotzen genuenez huts egiten zuenean jotzen hasi ginen, eta orain mizago ibiltzen gara. Nahiz eta jotzeko modua ez den bera, moldatzen gara.

Aurretik hitz egin dugu musika ez dela behar bezala baloratzen. Zer egingo zenukete hori aldatzeko?

O. Kulturari garrantzia gehiago ematen hasi behar da. Musika eskolena barregarria da. Gobernuak diru kopuru bat du musika eskolentzat, baina berdin du 10 musika eskola edo 100 dauden, kopurua ez dute aldatzen. Duela urte askoesan zuten %73a emango zutela, baina Nafarroako Gobernuak musika eskoletarako jarri behar duena ez da esan zuten kopuru horretara inoiz ailegatzen, beti gutxiago, eta orduan familiek eta udaletxeek jarri behar izaten dute. Baina nik uste dut pentsamendua dela aldatu behar duguna. Oinarria falta da. Haur batek jada 10 urterekin ikus dezala kultura ere garrantzitsua dela, baina gizarte moduan ez badiogu garrantzia ematen hori ez da inoiz aldatuko.

J. Aldaketa Gobernutik hasi behar da, alderdi politikoko guztietatik. Diru asko joaten da futbolera... Baina gainontzeko guztiak? Futbolaz aparte, gainera mutikoen futbola soilik, nabari du ez dagoela besterik. Guk ikasle asko ditugu futbola dutenak, eta ordutegiak egiterakoan kontuan hartu behar izaten ditugu beraien futbol entrenamenduak, ez baitute horretan faltarik onartzen. Azkenean hori da barneratzen dutena, telebistan agertzen dena. **E.** Artea orokorrean, musika, irakurketa gehiago baloratu behar da. Futbolari, adibidez, musikari baino balore gehiago ematen zaio, eta ez da horrela izan behar; guztiek baitituzte onurak.



ASTEKOA

MAIALEN GALARZA

Txuria badijuala!

Mitologia ahozketasun tradizioan oinarritzen diren istorioak dira, belaunaldiz belaunaldi munduaren inguruko azalpenak emateko sortutako fikzioak. Ulertzen ez ziren fenomeno horiei zentzua emanez, nolabaiteko begirada sinboliko-erlijioso batetik abiatuta.

Zentzu logikorik gabeko espazio eta denboraren ikuskera duten bitxikeriak pasatu izan dira ahoz aho, familiaz familia. Nork ez du ezagutzen mitologiako istorio berezirik?

Hona hemen bat:

Urdiaingo azken jentila hiltzorian zegoenean herriko etxe batera ekarri zuten. Jentilak ez zuen hitz egin nahi, hitz bat ere ez zuen esaten. Horrela dio istorioak:

Azkeineko jentila Erburun hil omen zan. Hartu eta etxia yan ber izan zain, eta ezin inola hitzik eginazi. Etxekoandriek suen pellizkua eseniakin autzi eta etxekoandria ata in omen zan, eta gainez hasi zanién, jentilak esan omen zen: Txuria badijuala! Hoik izan zian jentilak esanko zituen hitz bakararak.

NORK EZ DU EZAGUTZEN MITOLOGIAKO ISTORIO BEREZIRIK?

Kondairak dioenez, San Pedro ermitatik gertu, Saraben, Laieneko haitzaren eta gaztaleko haitzaren babespean, jentilak bizi ziren. Azken jentila herrira etorri zen bere azken egunak pasatzera. *Azkeineko jentila gaizkitu eta urdindarrak jaten eman zeain. Labendaiakin ematen omen zioten ahora.*

Ikusten denez, istorio honen bidez, azaltzen da Sarabe herria eta Urdiaingo herriaren artean eman zen bateratzea, eta ondoren etorriko zen, egungo Urdiain herria.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXE** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Ukraina eta...

ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Gaurko exodoaz gain, 13.000tik gora pertsona hil dira Ukraina eta Errusia arteko gatazkan. Baina...

Siria

10 urte eta gero, itzulerarik gabeko egoeran dago. Herritarren % 90 pobrezia azpitik. Bake prozesuaren aldeko aurrerapen esanguratsurik ez da eman.

Libia

Erabateko gatazkan. 2021eko abenduaren 24an hauteskundeak izan beharko lirarteke, baina Estatuko Kontseiluak data finkorik gabe atzeratu ditu. Errusia eta Turkiak bake prozesu bat bulkatu zuten, oraintxe porrot egiteko arriskuan dagoena.

Yemen

Gatazkak jarraitzen du. 29,83 milioi biztanletik 24 milioik asistentzia humanitaria behar dute. Horietatik 16 milioi muturreko gosetean daude. Ez da bukaera baikorrik aurreikusten.

Palestina eta Israel

Betiko gatazka. Abuztuan talka izan zen Palestinako familia batzuen etxegabetzeagatik. Bonbardaketak izan ziren: 250 hildako eta 1900 zauritu Palestina aldean, 12 hildako eta 340 zauritu Israel aldean.

Sahara, Maroko eta Aljeria

2020an hautsi zen Sahara eta Marokoren arteko su etena. Aljeria Sahararen alde agertzen da, eta ez ditu unerik hoberenak bizi Marokorekin. Europa ez dago at, Aljeria eta kontinentea lotzen zituen gasbidea 2021ean itxi baitzen.

Etiopia

2020an lehertu zen guda. Laguntza humanitaria iristea zaila da 9 milioitik gora pertsona gosetean dauden herrialdean. Gainera, 2 milioi pertsona baino gehiagok ihes egin dute Sudanera babes bila.

Mozambique

Cabo Delgadoko egoera (iparraldean) enkistatzen ari da. Talde terroristak desegiten diren heinean, ihes egiten dutenen kopurua gutxitzen ari da. Baina erasoek jarraitzen dute, eta 1,3 milioi pertsonen laguntza humanitaria behar dute.

Latinoamerika

Kolonia: sei urte dira bake akordiotik. Azken urteko mobilizazioek kolokan jarri zuten hura eta, ondorioz, 70-80 zibil inguru hil ziren polizien esku. Mobilizazioak jarraiak dira Kuban eta Nikaraguan.

DUELA 25 URTE...



Haize Berriak musika banda elkartearen aurkezpena

Elkarteko kideek prentsaurrekoan eman zuten haien berri. Etxarren, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutiako 35 musikariek osatzen zuten banda. Bandako zuzendaritzan Javier Unamuno, Itziar Flores, Olatz Garde, Jesus Irisarri, Pedro Jimenez, Andres Villaseca eta Sergio Gastaminza zeuden. Bandakoak musikari berritasuna eskaintzeko irrikitan zeuden. Aukera baliatu zuten Altsasuko elizan apirilaren 27an izan zen kontzertu didaktikoa aurkezteko.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maidier Gabirondo Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Hurrengo inbertsiorako dirua biltzen

Inbertsiorik ez du aurreikusi aurtengo Urritzolako Kontzejuak. Hainbat urtez dirua bildu ondoren egingen du. Larraun gaineko zubiak konponketa premia du. Kontzejuak handik gertu duen partzela abenduak uholdearekin oso kaltetuta gelditu zen

URRITZOLA

Urritzolako Kontzejuak aurtengo 10.281,7 euroko sarrerak eta 2.236,04 euroko gastuak izanen ditu. Fermin Mariñelarena Irarizoz kontzeju buruak azaldu duenez, "gure gastu handiena argiteria publikoaren faktura da". Sarrerak bi jatorri dituzte: udalaren eta gobernuaren laguntzak, aurtengo 6.172,32 euro, eta ondare aprobetxamenduko 3.590 euro. Mariñelarenak esan duenez, "guk normalean gastuak baino sarrera handiagoak ditugu. Eta festarik ez antolatzean gehiago aurreztu dugu. Beti diruzaintzako gerakina dugu eta hamar bat urtez dirua biltzen egon ondoren, nahikoa diru dugunean inbertsioak egiten ditugu". Gaur egun 5.000 bat euro izanen dituztela azaldu du kontzeju buruak. Bestetik, Arakilgo Udalak urtero kontratatzen dituen langileek hainbat lan egiten dituzte herrian, esaterako: landare hesia moztu, farolak kon-



Abenduaren 10eko uholdeak kontzejuaren larrean utzitako arrastoa. UTZITAKOA

pondu, elkarteak margotu edo hilerria garbitu. "Horregatik auzolan gutxi deitzen ditugu".

Zubiak eta larrea

Arakil ibairen gaineko zubia konpondu zuten. Izurdiagara

daraman bideko Larraun ibai gaineko zubia oso hondatuta dago eta konponketa premia du. Kontzejuak horretarako nahikoa dirurik ez du eta Mariñelarenak aurreratu duenez, Arakilgo Udalarekin hitz egiteko asmoa dute,

dirulaguntza eskaeretan-eta laguntza eskatzeko.

Urritzolara daraman NA-7010 errepidearen hasieran, Errotzen, Arakil ibai gaineko zubi bat dago. Hiru metro zabal ditu. Eta estua denez, autobusak, traktore handiak, kamioiak eta beste ezin dira pasa. "Trafiko guztia dermioko bidetik pasa behar du halakoetan eta hondatu egiten da". Azaldu duenez, herrian bi etxe egiteko proiektua bideratzen ari dira udaletxean. "Eraikuntzako kamioi guztiak dermiotik etorri beharko dute". Konponbidea badute urritzolarrek: egungo zubiaren paraleloan berri bat egin eta hegoaldeko petrila botatzea proposatu dute, "Egillorren egin duten bezala. Udalak Vianako Printzea erakundeari iritzia eskatu behar zion, baina ez dakit erantzun ote dieten", azaldu du Mariñelarenak.

Izurdiagarako bidean, bi ubeldeen artean 22.500 metro karrikatuko partzela du kontzejuak. 2021ean han artoa erein eta uzta jaso ondoren belarra erein zuten. Baina abenduaren 10eko uholde handiak ereindako lur pila eraman zuen eta korrontea handia zegoen tokian harria agerian utzi zituen. "Partzela hori sekula ez da hautsi nahi izan, ez zen belarririk ereiten. Abenduakozorte txarra izan da. Ikusi beharko da etorkizunean artoa erein eta haren ibintzeak uzten diren, erein gabe".

Uharten zaharberritzea bulkatzeko, lehenik parte hartzea

Uharte Arakilgo herrigunean dauden eraikin gehienek babes motaren bat dute. Haiek eta Zerradoan auzoan etxe gehienak 50 urte baino gehiago dituzte. Eraikin askotan ez da jenderik bizi eta pitteka aurri egoeran daude. Ondorioz etxe horiek kontserbatzeko, berreskuratzeko eta erabiltzeko kostu handiko inbertsioa egin behar da. Etxeen zaharberritzeari bultzada emateko udalak erabaki du Etengabeko Lehentasunezko Birgaitze Eremua deklaratzeko. Eremu bat herrigunea litzateke eta bestea Zerradoa auzoa. Onartu aurretik, udalak iradokizunak eta ekarpenak jasoko ditu maiatzaren 6ra arte.

Haur eskoletako hezitzaileak greba egitearen alde

Maiatzaren 2tik aurrera greba egitea erabaki dute haur eskoletako hezitzaileek. Nafarroa 0-3 plataformako kideek gogorarazi dute Hezkuntza Departamentuarekin lan negoziazio mahai bat sortzea nahi dutela. "Egutegi eta konpromiso zehatzak izatea nahi dugu. Mahaia sortu arte, mugagabeko grebaren deialdiarekin aurrera segitzen dugu".

Gasoleo A ibilgailuentzat
Gasoleo B nekazaritzarako
eta kalefakzioarako

www.iparoil.com

IPAR OIL

GASOLEO BANAKETA
Sakanako bailara
Tel. 620 143430

Langraiz Oka Los Llanos industriagunea 01230 Langraiz Oka (Araba) 945 371358 • 648 250975	Santurtzi Aparkabisa industriagunea 48980 Santurtzi (Bizkaia) 945 371358 • 696 525761	Urnieta Erratzu industriagunea - 201 20130 Urnieta (Gipuzkoa) 943 330311 • 646 716256
---	---	---



Idoia Resano Igoa pottokez inguratuta Andian. UTZITAKOA

"Askotan ez gara ohartzen zaldiek zein behar dituzten"

IDOIA RESANO IGOA BELARDIKO KIDEA ETA POTTOKA HAZLEA

Pottoken eta zaldien inguruko hitzaldia antolatu du Belardi elkarteak hilaren 21ean, ostegunean, 18:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean

Alfredo A.I. DORRAO / ETXARRI A.

Ibarreko ekoizle horien produktak ezagutzera eman eta toki-ko kontsumoa sustatzeko, Amalurra azoka antolatuko du Belardi elkarteak apirilaren 24ko goizerako Etxarriko plazan. Ekoizleak, artisauak, haurrendako tailerra, mahai-ingurua eta zikiro dastatzea izanen dira. Ohi denez, Belardikoek azokaren aurreko egunetan jarduerak antolatzen dituzte. Oraingoan zaldi aziendari buruzko hitzaldia izanen da.

Hitzaldia: Zaldien etologia. Pottokas de Piornal Haiengandik ikasten dugun guztia. Izenburua ulertzeko. Zer da zaldien etologia?

Zaldien berezko joera naturala ikertzen duen zientzia alor bat da, ulertzeko zaldiek zergatik

"ZALDIEN JOKABIDE NATURALA IKERTZEN DU, ONDOREN, HEZTEKO MODURA APLIKATZEKO"

jokatzen duten horrela eta nola bizi diren. Zaldiak egoera naturalean daudela ikertzen da, haien berezko joerak zein diren jakiteko. Zeren etxerazten ditugunean egoera ez naturalak dira eta beste jokabide batzuk dituzte.

Zer dira Pottokas de Piornal? Piornal Extremaduran dago. Pottoka antzinako arraza bat da. Galesko Lucy Rees bizi guztia darama munduan barna dauden zaldi basatiak ikertzen. Zoologoa da, etologian aditua. Berez, zaldi basatirik dagoeneko ez dago.

Daudenak dira garai batean etxe-kotutako zaldiak, basati bihurtu direnak eta basati moduan bizi direnak. Reesek zaldi horien jokabideak ikertzen ditu. Eta zaldien jokabide naturala ikertzen du, ondoren, zaldiak hezteko modura aplikatzeko. Askotan entzuten da zaldien heziketa naturala eta halakoak. Emakume hori zaldiekin horrela lan egiten hasi zen haien jokabide naturalak oinarria hartuta.

Nolaz ezagutu zituen pottokak?

Arazoak zituzten zaldiekin lan egin du beti, arrakasta handiarekin munduan barna. Ikerketak egin eta zaldiak nola hezi erakusteko ikastaro asko ematen zituen. Euskal Herrira ere etorri zen eta pottokak ezagutu zituen. Rees arraza horrekin txundituta gelditu zen. Berak esaten du Europako arrazarik antzinenekoa dela. Eta ordutik betidanik pottoka buruan izan du. Bere betiko ametsa izan zen Europan sortzea natur parke moduko bat, zaldiak era basatian garatzen utzita, haien jokabideak ulertzeko. Eta hori pottoka arrazarekin egitea erabaki zuen.

Eta hori Piornalen egin du?

Bai. Euskal Herriko Pottoka Elkarteak pottoka batzuk utzi zizkion, eta han haiek era basatian garatzen utzi zituen. Han hamar bat urte darama pottoka haiek ikertzen. Han ikastaroak egiten ditu eta hainbat unibertsitateetatik joaten dira berarekin etologia ikastera.

Ikerketatik ondorioak lortu ditu?

Animalien behaketa egiten egoten dira jakiteko haien artean harremanak nola egiten diren, taldeak nola banatzen diren, taldeak nola sortzen diren... Indibiduo guztiak zerrendatuta dituzte eta jasotzen dute: hau honen edo bestearekin elkartu da. Datu bilketaren ondoren testuinguruan jarri eta gauza horiek zergatik gertatzen diren, horri buruzko beraien hipotesiak ateratzen dituzte. Oso ondorio interesgarriak dira.

Esaterako?

Orain arte zaldien jokabidea ulertzeko etxekotuta dauzkagun zaldiak hartu dira kontuan. Eta

"TALDEEN KOORDINAZIOA ETA SINKRONIZAZIOA DIRA ZALDIEN HARREMANEN OINARRIAK"

horien jokabideak pixka bat aldatuta daude. Pentsatzen zen zaldiek, primateen edo txakurren modura, menperatze hierarkiarekin funtzionatzen zutela; beraien funtzionatzeko eran hierarkia bat zegoela, non batzuk pribilegio batzuk dituzten, ordena moduko bat mantentzeko eraso dezente dauden... Reesen hipotesi eta ondorioak dira ez dela hierarkia hori existitzen, zaldien harremanak beste oinarri batzuk dituztela: taldeen koordinazioa eta sinkronizazioa. Zaldi batek egarria badu, eta ura edateko mugitzen hasten bada, besteek jarraitzen dute. Talde guztiaren mugimendua sinkronizatuz mugitzen dira. Ez du batek agintzen eta besteek kasu egiten, koordinazioaren bidezko mugimendu bat da, talde guztia mugitzen da, eta batera egiten dituzte gauzak.

Ohartu zen aske zituen zaldien artean kasik ez dagoela erasorik. Eta gure etxeetako zaldietan ohartzen gara jana ematen diegunean jatekoa lortzeko haien artean borrokatzen direla. Jokabide horiek ikasketa prozesu baten ondoren sortu dira, ez dira berezko joerak. Horrek asko erakusten du guk beraiekin harremanak nola izan jakiteko. Orain arte guk nahi genuena eginarazi diegu, guk agintzen dugulako. Gu gara zer egin behar den dakigunak, eta hori egitera derrihortu beharko ditugu. Hori egiten da gu menperatzaile izanik. Hori indarraren bidez egiten da. Reesek atera dituen ondorioengatik argi eta garbi dakigu zaldiek ez dutela horrela funtzionatzen. Lan askoz hobe egin dezakegu kooperazioarekin eta haiekin kooperatzen. Eta haiek ikastea guk egitea nahi duguna.

Ikasketa prozesu bat?

Bai. Kontuan izan behar dira haien ikasteko, ikusteko eta bizitzeko erak. Ez da errazagoa zaldi bat mugitzea indarraren bidez; haiek taldean mugitzen diren bezala mugitzea hobe.

Zer azalduko du hitzaldian Reesek?

Proiektua zertan den eta zer ondorio atera dituen. Guk jakiteko gure pottoka eta zaldiekin nola jokatu dezakegun ondorio hobeak lortzeko, harreman hobe; non komunikazio argia dagoen eta gauzak askoz hobe eta errazago lortuko ditugun. Eta horrela, beraien ongizatea kontuan hartuta, zaldiendako gauza hobeak lortuko ditugu.

Arbizuarren iritzia jaso dirulaguntza eskatu aurretik

Arbizuko Udalak hiru urterako inbertsio proposamenak zabaltu ditu ekarpenak jasotzeko

ARBIZU

Nafarroako Gobernuak Tokiko Azpiegitura Planaren (TAP) birtatez herrietan dauden azpiegiturak berriitu, mantendu edo hobetzeko diru laguntzak ematen ditu. Hurrengo TAP 2023-2025 urteetan lanak egiteko da. Udalek laguntza deialdi horretara lanak egiteko proposamenak aurkeztu dituzte eta foru gobernuko teknikariek erabakitzen dute zein lan finantzatu eta zein ez. Deialdia kontuan izanik, Arbizuko Udalak hiru lan proposamen aurkeztuko ditu deialdiara: Fernando Urkia kalearen zati batean (Beginazpitik Joxen izkinara arte) saneamendu sarea eta zorua berriitu eta parke pareko zatiaren pabimentua konpondu; kiroldegiko klimatizazio sistema aldatu eta berriitu eta udaletxeko bulego eta artxibategiko solairua birmoldatu, espazioa berrantolatu eta tokia hobe aprobetxatzeko.

Udalak hiru proposamenak eta legearen oinarritzko baldintzak etxez etxe banatu ditu, arbizuarrek ekarpenak egin, iritzia eman eta beste proposamenen bat badute hala egin dezaten. Horretarako hilaren 20ra arte dute, eta horiek udaletxeko buzoian sartu beharko dituzte.


Estalpea 'Hiriko zuhaitza' izanen da

Botoen %43 jaso ditu (264). Egileak 2.000 euroko saria eta proiektua egiteko bi hilabete izanen ditu. 'Altsasuko nortasuna' bigarren gelditu da botoen %29rekin (180) eta hirugarren, berriz, 'Aterpea' %27ko botoekin (168)

ALTSASU

Jatorri italiarra duen eta Iruñean bizi den Francesca Fiorelli arkitektoak irabazi du Altsasuko estalpea egiteko ideia lehiaketa. Udalararen www.altsasu.eus webgunearen bitartez egin zen herri bozketaren bidez altsasuarrek haren proposamenaren alde egin dute. Fiorellik 2.000 euroko saria jasoko du. Gainera, udalarekin hitzarmena sinatu ondoren estalpearen proiektua eta obra zuzendaritza kontratua jasoko ditu. Proiektua egiteko gehienez bi hilabete izanen ditu. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "negoiazioan gehienezko epe hori murriztea aztertuko dugu".

Aukeraturakotako proposamena mendealdeko etxebizitzaren fatxadatik eta frontoitik urruntzen da, pasabide zabala uzteko eta argi gehiago pasatzeko. Kultur gunearen fatxadarekiko paraleloki lerrokatzen da, 7,5 metrora, eta haren iparraldeko fatxadara egokituz. Kultur guneko sarrearen hegoaldeko izkinaren parean kokatuko da Hiriko zuhaitzaren enborra eta hura ardatz hartuta, modu erradialean bederatzi zutabe banatuko dira plazan barna. Aukera horrekin arkitektoak habe gutxiago jarri nahi ditu, mugimendua ez tra-



Proposamen irabazlea Bakea kaleetik ikusita. 612 boto emaille izan ziren. UTZITAKOA

batzeko. Zutabeen banaketa erradial horregatik estalpearen zabalera aldatuz doa eta kultur gune parean du bere alderik luzeena proposamen horrek: 48 metro. Bakea kalera jotzen duen aldeak 31,75 m luze ditu. Alderik motzena, 16 m-koa, lokomotor trenaren parekoa da. Guztira 730 m²-ko azalera du.

Estalpeari bederatzi adar dituen enbor batek eta bederatzi zutabek eutsiko diote, altzairuzkoak eta harea kolorearekin lakatuta. Batzuk eta besteak habez lotuta egonen dira, eta egiturari eusten

dioten habe nagusien artean, altzairuzko uhal sistema batek osatuko du bigarren mailako egitura sistema. Teilatutak txiribil orientatuzko egur taulen sandwich panelak izanen ditu eta zinkezkak akabera.

Argia sartzeko, estalpearen teilatuan hainbat diametrotako argi zuloak aurreikusi ditu Fiorellik. Argi zuloak perimetrotik urruti eta enborretik gertu kokatu ditu. Argi zuloak beiraz estalita egonen dira. Argizuloen barruko aldean kolore bakarreko LED argi zerrendekin egin-

dako borobilak egonen dira. Horien bidez oinezkoendako argiztapen egokia eta inguru segurua eskainiko du. Bestalde, potentzia handiagoko LED zerrendak aurreikusi ditu estalpearen perimetroa mugatzen duten zutabeen barneko ertz bertikaletan. Horiek une jakinetan erabil daitezke, esaterako, azoka edo ikuskizunetan. Gainera, erabileraren arabera LED argien indarra erregulatu daitekeela gaztigatu du arkitektoak.

Arkitektoak proposatu du udalak eszenatokia tren makinaren paraleloan kokatzea. "Horrela babestuago dago eta estalpeak puntu gehiagotik har ditzake bisitariak". Fiorelliren iritziz, estalpe proposamenak jardura ugari hartzeko aukera eskaintzen du.

Beste sarituak

Altsasuarren botoek *Altsasuko Nortasuna* eta *Aterpea* proposamenak bigarren eta hirugarren postuan utzi dituzte hurrenez hurren. Haien egileek 500 euroko sari bana jasoko dute udalaren aldetik. Azkenik, ideia lehiaketaren oinarriak jarraituz, epaimahaiak accesita eman dio *Einbeinstand* proiektuari, bere originaltasunagatik. Aipamen berezi horrek ez dauka sari ekonomikorik.

Altsasuarrek ideia lehiaketara aurkeztu ziren 24 proposamenen artean hiruren alde botoa emateko aukera zuten. Hiru horiek teknikarien epaimahaiak baloratu eta gero pasa ziren boto fasera. Teknikarien balorazioaren arabera proiektu onena Hiriko zuhaitza zen eta hari 87 puntu eman zizkioten. Aterpea proiektuak teknikarien 66 puntu jaso zituen eta Altsasuko nortasunak, berriz, 65.



SOLASALDIA
Izenburua: **EPIZENTROA**
Hizlaria: **Nerea Loiola**
Tokia: **IRURTZUN (Pikuxar)**
Eguna: **Apirilaren 21ean**
Ordua: **18:00**

Izena emateko:
Sakanako Mankomunitateko
euskara (euskara@sakana-mank.eus)
eta berdintasun
(berdintasuna@sakana-mankeus)
zerbitzuetan





Juana Mari Jauregi Flores liburua eskutan. Atzean irin fabrika zegoen tokian eraikitako etxebizitzak.

"Nire etxeko eta Sakanako historiaren parte bat da"

JUANA MARI JAUREGI FLORES LIBURUAREN KOORDINATZAILEA
Etxarriko irin fabrikari buruzko liburua argitaratu eta aurkeztuko du

BiLTOKi
TABERNA • JATETXEA

Eguneko menua 11 €

Menu berezia 15 €

Telefono berria:
948 562 348 • Altsasu

xapatero
taberna

Etxeko kroketak eta bokatak

948 460 162 • Etxarri Aranatz

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ
Garai bateko eta, dagoeneko, desagertuta dagoen industria ondare bat da Etxarri Aranazko San Miguel Irin fabrika. Haren berri jasotzen duen liburu elebiduna apirilaren 22an, ostiralekin, 19:00etan Etxarriko kultur etxean aurkeztuko dute. **Zergatik liburua?**

Ikusi nuenean irin fabrika edozein momentutan desagertuko zela, pauso batzuk ematen hasi nintzen. Han zegoen makineria eta dokumentazio guztia jaso nuen. Niretako nire etxeko eta Sakanako historiaren parte bat

enez, kontserbatzeko lantxoak egiten hasi nintzen; gutxienez, zerbait Etxarri Aranazko Udalean eta, agian, inguruko udaletan halako testigantza bat sartzeko. 2005ean hasi eta orain arte egin ditudan lan guztien laburpen bat da, lortutako amets bat da liburua. **Garai bateko testigantza da, ezta?** Bai. Irin fabrika 1936an hasi zen lanean, 1970eko hamarkadan itxi zuten arte, hor bilduta dago ez bakarrik nire familiaren istorioa, baizik eta Sakanako nekazaritza eta historia polit bat.

Zuk idatzi duzu liburua?

Ni motorra, koordinatzailea izan naiz. Batzuk esaten dute arima izan naizela. Baina, egia esan, horrelako liburu bat egiteko ni bakarrik ez naiz gai. Laguntza eskatu eta oso laguntzaile onak opatu ditut bidean: Victor Manuel Egia Astibia lan asko egin du; Marian Mendiola Barandallak asko lagundu dit, batez ere, liburuaren osaketan; Zuriñe De la Cueva Aiestaranek asko lagundu dit webgunearekin. Berak lan handia egin zuen aitak utzitako dokumentazioa antolatzen eta sailkatzen, eta asko zen. Guztia Iruñeko artxibategian sartu genuen. Egindako lanarekin De la Cuevak liburuaren osaketan ere lagundu dit. Sakanako nekazaritzaz oso dokumentazio gutxi opatu dugu Nafarroan. Nicolas Arbizu Gabirondo iturmendiarrarekin eta Ekhi Etxeberria Kaiuela bakaikuarrarekin adostasunerira iritsi eta Mendiolak bien lanen antolaketa egin zuen. Eta hori liburuan jasoa dago. Ni gainean egon naiz: hau dago, hau egin behar da, bestea... Baina egia da bostek pila bat lagundu didatela.

Beraz, webgunea ere?

Sekulako lanak egin zituen De la Cuevak. Berak antolatu du www.sanmiguelirinfabrika.eus webgune guztia. Webgunea nik ordaintzen dut urtero. Baina iritsi daiteke momentu bat ordaintzen ez baduzu bertan behera gelditzen dena. Euskal Herriko Wikipedia Elkartearrekin harremanetan jarri nahi dugu, agian horko informazio asko Wikipedian gel-

di daitekeelako. Pentsatzen dut mantenduko litzatekeela eta balioko lukeela beste pertsona batzuek lan gehiago egiteko, edo hobetzeko.

Nola dago antolatuta liburua?

Hitzaurrea nirea da eta ondoren bi atal nagusi daude. Lehendabizikoa Egiak egindakoa da. Neumologo jubilatua da eta Nafarroako euskal hizkuntza, kultura eta historiarekin konpromiso handia du. Azken urteetan, batez ere, gelditu diren XIX. eta XX. mende hasierako industria zaharrak ondare gisa hartu ditu eta horren inguruan izugarriko lana egin du. Egiak lehen atal horretan lan tekniko handiena egin du. Kokatu du nire familia, arbasoen jatorria (errotariak XVII. mendetik edo gehiago), ondoren Nafarroan zenbat irin fabrika zeuden, Etxarri zentralu da eta industria beraren funtzionamenduan (sistema austrohungariarra).

Bigarren atala Etxarri Aranazko irin fabrikaren eta nekazaritzarekin zuen loturari buruzkoa da. Arbizuren eta Etxeberriaren lanen inguruan Mendiolak egindako antolaketa dago: Sakanako ekonomia, XVII. eta XVIII. mendeetatik ibarreko nekazaritza, basoak, basogintza, nolakoa izan zitekeen. Gaur egun arte. Lan xamurra da, baina interesgarria. Testigantzak ere badaude. Elkarriketak egin dizkiegu Etxarriko adineko pertsonen, gehienak nekazariak izandakoak. Nekazaritzari eta irin fabrikari lotutako galderak egin genizkien. Etxarriko euskararen eman ditugu lekukotza horiek. Beste ataltxo batean eranskinak heldu dira: aitak jasotako dokumentazioa, makinaren argazkiak eta halakoak.

Zeinek argitaratu du liburua?

Nire poltsikotik ordaindu dut guztia. Nire ametsa zen. Ez daukat inongo asmorik dirurik irabazteko. Nire ingurukoek esaten didate gutxienez zerbait berreskuratu beharko nukeela. Horregatik salgai dago, eta laguntza eskatu dut udaletan. Nire asmoa zen testigantza bat sortzea eta hori udaletxeetan gelditzea.

Liburua non egonen da salgai?

Hitzaldiaren ondoren liburu egonen da. Hilaren 26an Liburuaren Eguna ospatu behar da Etxarri Aranatzeko eta han ere salgai izanen da. Gainera, ibarreko liburu dendatan salgai egonen da.

"LIBURUA 2005 URTEAN HASI ETA ORAIN ARTE EGINDAKO LANEN LABURPENA DA"



Opakuako lau igoeratan azkarrena izan zen Flores. AVM

Garikoitz Flores azkarrena Opakuako Igoeran

AUTOMOBILISMOA 58 pilotuen artean nagusitasunez gailendu zen Sakana Motorsporteko pilotu lakuntzarra

Maidet Betelu Ganboa SAKANA

Sakana Motorsport eskudarian oso pozik daude, larunbatean Agurainen jokaturako Opakuako Igoeran eskuderiako Garikoitz Flores Aristorenak (Talex M3) garaipen sendoa lortu zuelako eta proban lehiatu ziren eskuderiako gainontzeko hiru pilotuek –Iban Lopez de Goikoetxea (R5 GT Turbo), Angel Gurmino (Renault Clio Sport) eta Iker Askargorta (Opel Astra GSI)– lan ederra egin zutelako.

Opakuako Igoeran sailkatu ziren 58 pilotuek lautan osatu behar izan zuten ibilbidea. Lehendabiziko bi mangak entrenamenduzkoak ziren, eta segidan bi manga ofizialak jokatu ziren. Pilotuek nahikoa buruhauste izan zituzten, gaueko eurien ondorioz entrenamenduko lehen mangan zorua bustita eta irristakorra zegoelako, eta zein gupil erabili zalantzan egon zire-

lako, baina egunak onera egin zuten eta horrekin batera zirkuituaren egoera hobetu zen.


Garikoitz Flores errepideko asfaltoaren egoera aldakorrari primeran egokitu zen, Opakuako Igoerako lau mangatan nagusitu baitzen. Hirugarren aldian, hau da, lehen manga ofizialean egin zuten bere denborarik onena (2:25.508). Lakuntzarrak hegan egin zuten. Sailkapen orokorrean ia 2 segundo atera zizkion Aitor Mansori (BCR B49), 1.855 segundo hain zuzen ere (2:27.363), eta hirugarren Abel Lombardo izan zen (Dallara F395), 2:29.972, 4.464 segundora).

Sakana Motorsporteko gainontzeko kideei dagokienez, Iban Lopez de Goikoetxea olaztiarra 26. postuan sailkatu zen (3:01.700), Angel Gurmino olaztiarra 31. postuan (3:07.633) eta Iker Askargorta olaztiarra 37. postuan (3:10.860).

Unzilla, Villalobos eta Gomez Altsasuko podiumean

TXIRRINDULARITZA Altsasuk kadeteen eta juniorren lasterketa bana hartu zuen asteburuan

Altsasuk bi txirrindularitza proba hartu zituen asteburuan. Larunbatean kadete mailako 34. Burunda Trofeoa jokatu zen (51 km), eta txirrindulariek Altamira behin gailditu behar izan zuten. Helmugara 21 txirrindulariz osatutako taldea iritsi zen batera. Esprint estuan Eñaut Urkaregi (Danena) gailendu zitzaion Quesos Albeniz-Burunda taldeko Iker Gomezi (1:17:24). Bere taldekide Ekain Imaz Top-Tenean sailkatu zen, zazpigarren izan baitzen. Gainontzeko sakan-darrak ere oso txukun aritu ziren.



Juniorren esprinta. TXIRRINDULARIAK.COM

Unzillaren esprinta

Igandean 63. Erramu Trofeoa neurtu zituzten indarrak juniorrek (88 km). Altamira hirutan gailditu behar izan zuten. Mugimendu askoko lasterketa oso azkarra izan zen, batez beste orduko 40 kilometroko abiadura jokatu zena. Azkenean hirukote bat iritsi zen helmugara (2:23:40). Esprint luze bezain ikusgarrian Xabier Zabala (Alimco Campagnolo) gailendu zitzaion Mikel Unzilla etxarriarrari (Sakana Group) eta Ibai Azanzari (Vizcay Hermanos). Adrian Martinez lakuntzarra (Sakana Group) zazpigarren sailkatu zen, 3:32ra. Gainontzeko sakanarrekin ere lan ona egin zuten. Mikel Unzillak mendiko trofeoa irabazi zuen eta Ander Villalobos altsasuarrak tartekako helmugaren saria lortu zuen.



UTZITAKOA

FUTBOLA Lagun Artea eta Etxarri Aranatz, lanera

Lehen Maila Autonomikoan Lagun Arteak lau garaipen lortu ditu jarraian eta jaitziera postuetan jarraitzen du, kategoria eusteko postuetatik bost puntura. Gaur, asteazkena, Aoi du aurkari, 20:00etan, Agoizen. Puntu horiek urrezkoak dira.

Preferentean Etxarri Aranatzek berdindu egin zuen eta jaitziera postuetatik atera zen. Bihar, osteguna, 12:00etan Ardoi taldea hartuko du San Donaton. Garaipena lortzea aurrera pausoa litzateke. Erregionaleko lehen fasean Altsasu bigarren sailkatu da eta igoera fasea jokatu du. Emakumezkoen Autonomikoan, Altsasuk Cortes izango du aurkari apirilaren 23an, Dantzalekun.

Xotaren talde guztiak batera

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xota talde nagusia Irurtzongo Atakondoara hurbildu zen, Xotako harrobiko talde guztiarekin egiten duen jardunaldian parte hartuz. Ekitaldian Lacturale eta Magnesitas Navarras babesleen ordezkariak egon zen. Osasuna Magna ligako partida jokatu du ostiralean Levanteren kontra, 21:00etan, Levanten.



XOTA

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI / BAKAIKU
Zazpi urteren ondoren, apirilaren 23an IV. Olaztiko Rallysprinta jokatu da, Sakana Motorsportek antolatuta. Eskuderiako kide Haizea Galarza Barandiaranek sakandarrak motorraren festan parte hartzera animatu ditu.

Nola animatu zarete atzera ere Olaztiko Rallysprinta antolatuz?

Azken edizioa 2015ean jokatu zen, eta gogo askorekin berreskuratu dugu. Betidanik guztioi asko gustatu zaigun proba da, etxekoa eta berezia, eta lan talde ona dugunez eta berriz ere antolatzeko aukera izan dugunez, aurrera egin dugu.

Urbasako Igoera mendi igoera da eta Olaztiko Rallysprinta lasterketa ezberdina, herriko kaleetan jokatzen delako.

Bi probak oso ezberdinak dira. Ezberdintasun nagusiak ibilbidea eta kopilotuen lana dira, rallysprintean kopilotuak paper garrantzitsua duelako eta talde lana egiten delako. Ibilbideari dagokionez, Olaztiko Rallysprinta herrigunean hasi eta herria zeharkatzen du, eta gero Urbasako Igoerako zati bat hartzen du, Altamirako bidegurutzera ino igotzen baita, baina bidegurutzetik behera jaisten da. Zati hori oso polita da, bihurgune asko dituelako eta paisaia ere polita dugulako.

Beraz, Rallysprinta ikusteko toki egokia izan daiteke?

Bai. Altamiratik beherako zati horrek bere xarma du. Bihurgune itxiak dituen, pilotu eta kopilotuen lana asko ikusten da. Baina baita Olaztiko kaleetan eta bidegurutzeetan ere. Rallyak gustuko ditugu, eta hemen antzekoena rallysprinta dugu. Lasterketa ezberdina eta polita da.

Noiz hasiko da?

Segurtasun neurriak betetzeko 11:00etan bideak moztuko dira eta rallysprintari 13:00etan emango zaio hasiera. Partaideek lau aldiz osatu beharko dute ibilbidea, orduka abiatuta. Azken unera arte, errekonozimenduen eguna iritsi arte, isilpean mantentzen dugu ibilbidea, baina aurreko edizioetako antzeko formatua izango du. Aldaketa nabarmena da aurten autoen asistentzia gunea ez dela herri gunean izango, Olaztiti Ziordia bitarteko industrialdean baizik, espazio arazorik ez izateko.

Nolako parte hartzea espero duzue?

Aurten 50 autoreen muga jarri dugu. Kopurua betetzea espero

"Olaztiko Rallysprintean sekulako giroa egongo da"

HAIZEA GALARZA BARANDIARAN SAKANA MOTORSPORT ESKUDERIA

AUTOMOBILISMOA Apirilaren 23an IV. Olaztiko Rallysprinta jokatu da eta Sakana Motorsport eskuderiak automobilismoaz gozatzera gonbidatu ditu zaleak



Haizea Galarza larunbatean komisarioa izan zen Opakuako Igoeran. UTZITAKOA

dugu, pilotuak eta kopilotuak gogotsu daudelako. Apirilaren 15era arte eman daiteke izena.

Proba egunean zein lan egingo duzu?

Unean behar den tokian lan egingo dut, inolako arazorik gabe.

Batzuetan komisarioa zara. Zein lan egiten du komisario batek?

Lasterketako zuzendaria probako arduradun nagusia da, berak hartzen ditu unean hartu beharreko erabakiak: probari hasiera eman, proba eten... Komisarioak, nolabait, zuzendariaren begiak dira, zerbait gertatu bada zer gertatu den esango diotenak. Esaterako, istripua egon bada, partaideak eta autoa nola dagoen, lasterketak aurrera jarraitu dezakeen edo ez, anbulantzia behar den edo ez esango diona, zaletuen segurtasuna bermatzeko abisuak edo gomendioak emango dizkiona... Komisarioek paper oso garrantzitsua dute lasterketetan. Komisarioak lasterketaren begiak izateko eta segurtasuna bermatzeko daude. Eurak gabe, ezingo litzateke lasterketa egin.

Sakana Motorsport eskuderiaren talde polita zaudete lanean.

Lasterketak antolatzen hamar-hamabi lagun inguru gabiltza,

"AUTOMOBILISMOAREN INGURUKO GIROA GUSTUKO DUT, BIZI DUT ETA EMOZIOA SORTZEN DIT"

Olazti, Bakaiku, Lakuntza, Arbizu... herri askotakoak, eta gogotsu gaude. Zerbait nahi badugu, horretan lan egin beharko dugu, ez dago besterik.

Lasterketa egunean eta baita aurretik eta ondoren boluntarioen laguntza beharko duzue, ezta?

Bai, eskuderiaren gauden kide guztion artean ezin ditugu lasterketa batek dakartzen lan guztiak egin, asko baitira. Komisarioak boluntarioak dira, eta baita muntaia lanetan eta biltze lanetan laguntzen diguten pertsonak ere. Olaztiko jende askok parte hartzen du antolaketan, baita beste herrietako jendeak ere, eta guztiei emandako laguntza eskertzen diegu.

Gutxika emakume gehiago zaudete automobilismoan, baina oraindik mundu maskulinoa izaten jarraitzen du.

Geroz eta emakume pilotu eta kopilotu gehiago daude, eta komunikabideei esker, hori gehiago azaltzen da. Emakume batek pilotu edo kopilotu izan nahi badu, horrek asko animatzen du, gehiago badaudela ikusteak. Baina Rallyetako munduan beti emakumeak egon izan dira, ageriko lana eta ezkutukoa egiten. Nik antolakuntzan emakume asko ezagutzeko aukera izan dut. **Sakana Motorsporten zu emakume bakarra al zara?**

Ez, bi neska gaude.

Kopilotu edo pilotu al zara?

Ez, automobilismo zalea, besterik gabe. Hau txikitatik ezagutu izan dudana zerbait da, erakarri izan nauena. Inguruan lasterketako autoak ikusi izan ditut, Urbasako Igoera hemen bertan jokatzeak ere eragina izan du eta Bakaikun mundu honetan dabilten lagunak baditut. Katxarro Eguna ere antolatzen dugu, eta saltsa honetan ibiltzen gara.

Askok ez dute kirol kontsideratzen.

Haiei gonbidatuko nieke lasterketa bat zer den eta zer suposatzen duen probatzera. Automobilismoan esfortzu fisikoa dago, prestateta dago, betebeharreko neurriak daude... gainontzeko kirolletatik ez dut horren ezberdin ikusten. Automobilismoa eta bere inguruan sortzen den giroa gustuko dut, bizi dut eta emozioa sortzen dit.

Sakandarrak apirilaren 23an Olaztira hurbiltzera animatuko dituzue?

Jakina! Guztiak gonbidatuta daude. Ongi pasako dugu. Sekulako giroa egongo da eta eguraldiak laguntzen badu, askoz hobe.

Aralarrek 42. urtea, baina ilusio berbera

TXIRRINDULARITZA Aurten 41 txirrindulari trebatuko dira Aralar txirrindularitza klubean. Sakana Group izenarekin jarraituko dute kadeteen eta juniorren taldeek, baina eskolek Alea izena hartuko dute. Babesle berriaren egoitzan egin zen aurkezpena

Maidar Betelu Ganboa ETXARREN

Aralar txirrindulari klubak Harivenasak Etxarrenen duen Alea enpresan egin zuen 2022 denboraldiko aurkezpena, olo malutak ekoizten dituen enpresa baita klubeko babesle berria. Sakana Group kooperatibak kadeteen eta juniorren taldeak babesten jarraituko du, eta Alea eskolak babestuko ditu.

"42 denboraldi daramatzagu txirrindulariak trebatzen eta ilusioa, konpromisoa eta adiskidetasuna bezalako baloreak sustatzen. Txirrindulariei eta familiei eskerrak eman nahi dizkiegu, gugan konfiantza izateagatik" agurtu zuen ekitaldia Aralar



Aralar klubak Alea babesle berriaren egoitzan egin zuen aurkezpena.

klubeko presidente Alfonso Tadeo Ocañak. Familien inplikazioa txalotu zuen. "Seme-alaben gainean egon beharra dute, materiala erosi, lasterketetara joan, entrenamenduetan eta lasterketetan lagundu... Kirol honek asko eskatzen du, baina seme-alaben ilusioa guztiaren ginetik dago eta taldean giro ona dugu. Familia txikia gara" azaldu zuen. Babesleak eskertu zituen. "Denboraldi berria nobedadez beteta dator. Gure betiko babesleei babesle berriak batu zaizkie, Alea, Barranquesa eta Argiro, esaterako. Guztien laguntzarik gabe ezingo ginateke gaur hemen egon eta eskerrik asko guztiei, urte hauetan guztietan gu laguntzeagatik" azaldu zuen.

Segidan Harivenasako zuzendari Alberto Loizatek hartu zuen hitza. "Oso kontentu gaude zuekin kolaboratzeko eman diguzuen aukerarengatik. Alea enpresa gaztea da eta neska-mutiko hauek duten ilusio berbera dugu guk gure lanbidean. Soroetatik jasoko dugun oloarekin olo malutak ekoiztuko ditugu, merkatuan ezagunak izateko ilusioarekin. Neska-mutilak, bizikletan goza-

tu ezazue, ongi pasatzeaz sekula ez aspertu. Eta juniorrak, ea datorren urtean Alea izena daramazuen, baina maillot berde ilunagoan. Aurrera", adierazi zien, afizionatuen mailako Rural Kutxa-Alea taldeari keinu eginez.

Ilusio berriak

Aurten 41 neska-mutiko trebatuko dira klubean. "Helburuak betikoak dira: txikienak lagun berriak egin ditzatela eta bizikletarekin disfrutatu dezatela. Kirol hau gogorra da, baina ongi pasatzen badute guztia ongi joango da. Nagusien kasuan, guztia eman dezatela. Jubenilek dagoeneko etapa garaipenak eta podiumak lortu dituzte, eta kadeteen mailan ere aurki iritsiko dira. Banago aurten poztasun handia izango dugula eta aurrera egiten duten txirrindulariak trebatzen jarraituko dugula" nabarmendu zuen presidentek. Aurten bost lasterketa antolatuko ditu Aralarrek: eskolen mailako hiru (Lakuntzan, Lekunberrin eta Etxarri Aranatzen), Lakuntzako emakumezkoen lasterketa eta kadeteen mailako Lakuntzako proba.



Eskolak (32): Promesak (5): Alain Gonzalez, Markel Reparaz, Alain Agirre, Amaiur Razkin eta Irathy Perez. Entrenatzailea: Asier Razkin. **Hasiberriak (10):** Lander Gorriti, Sarah Arregi, Igor Romero, Ekaitz Paularena, Unax Garzandia, Egoi Saralegi, Aitz Berastegi, Anatz Arrieta, Lur Razkin eta Ekhi Arrese-Igor. Entrenatzailea: Juan Carlos Romero. **Kimuak (7):** Xabier Gorriti, Amara Arrieta, Maddi Martinez, Unax Galardi, Danel Agirre, Enaitz Aldunate eta Eider Razkin. Entrenatzailea: Iban Gonzalez. **Haurrak (10):** Janitz Zufiaurre, Manex Huarte, Luca Martinez, Iker Martinez, Unax Etxeberria, Ekai Erdozia, Ion Unai Gonzalez, Adei Agirre, Ramon Romero eta Nahia Arregi. Entrenatzailea: Xabier Etxeberria. **Babeslea: Alea. Kadeteak (2):** Eñaut Oiarbide eta Oihan Gorriti. Entrenatzaileak: Alfonso Tadeo eta Miguel Ocaña. **Babeslea: Sakana Group. Juniorrak (7):** Alex Lopetegí, Aimar Tadeo, Jon Koldobika Urrusolo, Mikel Unzilla, Manex Zufiaurre, Aritz Oiarbide eta Adrian Martinez. Entrenatzaileak: Jon Goikoetxea eta Xabier Maiza. **Babeslea: Sakana Group.**



KOLABORATZAILEAK: LEGARBE ERAIKUNTZAK SL – ARRICICI – TALLERES JUGA – TRANSARREGUI – LOREA – MAGLIASPORT – BAIZA MOTOR – LEKUNBERRIKO UDALA – SAKANAKO MANK – BORDA JATETXEA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

ASTEAZKENA 13

ALTSASU Altsasuko Musika eta
Dantza Eskolako hirugarren
kontzertua.
18:30ean, Iortia kultur gunean.

OSTEGUNA 14

ALTSASU Errepublikaren aldeko
ekitaldia.
12:00etan, Zubeztia elkartearen
aurreko oroigarrian.

OSTIRALA 15

ALTSASU Gazte agenda: Billar
txapelketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

LARUNBATA 16

ALTSASU Gazte agenda: Futbolin
txapelketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

IGANDEA 17

ALTSASU Euskal preso eta
iheslariak etxera elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 18

ALTSASU Pentsio duinen aldeko
elkarretaratzea.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEAZKENA 20

ETXARRI ARANATZ DNA
programa: Ghislaine Veranoren
Gorputzaren soinuak
Bitartekaritza proiektu integrala
dantza tailerra.
10:30etik 12:00etara, kultur etxean.

OSTEGUNA 21

ETXARRI ARANATZ DNA
programa: Ghislaine Veranoren
Bitartekaritza proiektu integrala
dantza tailerra.
10:30etatik 12:00etara, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Jolas parkea.
11:30etik 13:30era, frontoian.

ETXARRI ARANATZ Jolas parkea.
16:30etik 19:30era, frontoian.

ETXARRI ARANATZ Hitzaldia:
Zaldien etologia *Pottokas de*
Piornal haiengandik ikusten
dugun guztia. Hizlaria: Lucy Rees.
18:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Literatur geraldiki:
Epizentroa liburuaren inguruko
solasaldia egingen du Nerea
Loiolak. Mendialdeko euskara
zerbitzuek antolatuta.
18:30ean, Pikuxarren.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

El triunfo gaurkotasunezko
filmaren emanaldia.

Osteguna 14 19:30
Ostirala 15 19:30
Igandea 17 19:30

La hija oscura gaurkotasunezko
filmaren emanaldia.

Osteguna 21 19:00
Igandea 24 19:00

La última película
gaurkotasunezko filmaren
emanaldia

Osteguna 28 19:00

OSTIRALA 22


ALTSASU Gazte agenda: Epic
Party Games.
18:00etan, Intxostiapunta gazte
gunean.

ETXARRI ARANATZ San
Miguel irin fabrika liburuaren
aurkezpena.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Sendaberri paisaia
eszeniko berriak programa:
Yerbabuena producciones
konpainiaren *Lucio, una*
reflexión escénica ikuskizuna.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

LARUNBATA 23

ALTSASU Uholdeak: *X hau*
ez da okupatzen... Andrea
Ganuzaren kartel tailerra.



ALTSASU Uharteko Zentroaren
Uholdeak: *X hau ez da*
okupatzen... erakusketa.
Apirilaren 28ra arte. Astelehenetik
ostiralera 17:30etik 20:00etara,
larunbatetan ikuskizuna baino
ordu bat lehenago eta igandetan
16:00etatik 20:30era. Iortia kultur
guneako erakusketa aretoan.

ETXARRI ARANATZ DNA
programa: Ghislaine Veranoren
Gorputzaren soinuak
instalazioa.

Apirilaren 20etik 22ra.
Asteazkenean eta ostegunean
10:30etik 13:30era eta ostiralean
18:00etatik 20:00etara. Kultur
etxean.



UTZITAKOA



OLATZAGUTIA Rolihlahla
ipuinaren ilustrazio erakusketa.
Apirilaren 25etik maiatzaren 6ra.
Astelehenetik ostiralera
16:00etatik 20:30era, liburutegian.

11:30ean, Iortia kultur guneako
erakusketa gelan.

OLATZAGUTIA IV. Olazitiko
Rallysprinta.
Sakana Motorsportek antolatuta.
13:00etan, herritik.

IHABAR Liburuaren eguna: Inma
Biurruna eta Adyta Baldésen
poesia errezitala.
18:00etan, kontzeju etxean.

ALTSASU Gazte agenda:
Kazetaria segundu batez.
18:00etan, Intxostiapunta gazte
gunean.

ALTSASU Iortia antzerki
tailerraren *La farola* antzezlan.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 24

OLATZAGUTIA Sakanako
mendizaleak taldearen irteera:
Olazti – Arantzazu – Araia –
Arantzazu ibilbide motza.
07:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Amalurra
azoka.
Goizean, plazan.

ARBIZU Udaberriko Azoka:

loreak, landareak, xaboi
naturalak...
10:30etik 14:00etara, plazan.

SATRUSTEGI Liburuaren eguna:
Bideak ipuinaren aurkezpena
Iker Uribe eta Joana
Zigandarekin.
12:00etan, elkartean.

IRURTZUN *Nahia eta Nero*
txotxongilo antzerkia euskaraz
Rosa Martínez eta lagunak
konpainiaren eskutik.
17:30ean, kultur etxean.

LAKUNTZA Lander Garroren
Tipularen sehaska kanta film
dokumentalaren emanaldia.
Sarek antolatuta.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal preso
eta iheslariak etxera
elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 25

ALTSASU Pentsio duinen aldeko
elkarretaratzea.
12:00etan, Udaletxearen aurrean.

ALTSASU Liburuaren eguna:
El hilo invisible Manolita



Thundersen lehen hezkuntzako haurrendako tailerra.

Izena ematea liburutegian.
17:30ean, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Liburuaren eguna: **Raquel Sánchez Corcuera** idazlearen *Búhos contra dragones. Una defensa de las Humanidades* liburuaren aurkezpena.

18:00etan, liburutegian.

ASTEARTEA 26

ETXARRI ARANATZ Liburuaren eguna: **liburu trukea, salmenta, ipuin kontalaria eta herriko idazleen sinadurak.**
17:00etatik 19:30era, plazan.

ALTSASU Liburuaren eguna: **Alaine Agirreren** *Karena* nobelaren aurkezpena euskaraz.
18:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 27

ALTSASU Liburuaren eguna: *El tesoro de Lucio*

Aste Santu ospakizunak Aralarren

Data hauek garrantzitsuak dira kristauen egutegian. Erramu Igandean hasi zen eta Pazko Igandean edo Berpizkunde Egunarekin bukatuko den astean, Jesukristoren nekaldia eta piztuera ospatzen dute kristauak. Ibarreko herrietan elizkizun bereziak izanen dira egun hauetan. Baita Aralariko Santutegian ere. Aralariko Deun Mikel kofradiakotik jakinarazi

komikiaren inguruko topaketa Mikel Santos Belatzekin.

18:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Liburuaren eguna: **Amaia Nausia Pimoulierren** *Ni casadas ni sepultadas. Las viudas: una historia de resistencia femenina* liburuaren aurkezpena.
19:00etan, liburutegian.

OSTEGUNA 28

UHARTE ARAKIL Osasun mentalaren sustapena seme-alaben artean familiendako tailerrak Agintzari elkartearen eskutik.
17:00etatik 18:30era, udaletxean.

OLATZAGUTIA Liburuaren eguna: **Rolihlahla** ipuinaren kontaketa.
17:00etan, liburutegian.

ALTSASU Liburuaren eguna: **Mundinovi** taldearen *Zer gertatzen zaio Tukani?* Txotxongilo antzerkia.
18:00etan, lortia kultur gunean.

dutenez, Ostegun eta Ostiral Santuetan, 17:00etan, mezak izanen dira santutegian. Larunbatean, berriaz, 20:00etan izanen da. Eta Pazko Igandean 12:30ean izanen da meza. Igandean, kristauak Jesusen pizkundea ospatzen dute, eta egun hori baliatzen du Aralariko aingeruaren irudiak santutegitik irteera ofiziala egiteko. Aingeruaren irudiak igandean, 16:30ean, ekinen dio herriz herriko ibilbide luzeenari. Hasteko Barai barreraino joanen dira.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOA

LAN ESKAINTZA

Altsasuko Udalean Udal eraikinak eta zerbitzu anitzetako langileak aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda egiteko oposizio prozesua: Hautapen prozesuan parte hartu nahi dutenek eskabidea eta nortasun agiriaren kopia aurkeztu beharko dituzte Udalean 2022ko apirilaren 29ko 14:00ak baino lehen. Hautapen prozesua despidituta sortuko den zerrendak 3 urteko indarraldia izanen du edo beste deialdi bat egin arte. Informazio gehiago www.altsasu.net web orrian edo Altsasuko Udalean.

Mank-ek administrari ofizial eta garbitzaile lanpostuak aldi baterako betetzeko zerrendak osatzeko prozua martxan jarri du: Alde batetik, C mailari dagokion administrari ofizial lanpostuko probetan parte hartzeko euskara C1 hizkuntza eskakizuna izan behar da, eta D mailakoa den garbitzaile lanposturako B2 hitzkuntza eskakizuna bete behar da. Bi politzak hautaprobako puntuazioordena zorroztaren arabera ordenatuko da. Eskabideak eta dokumentazioa maiatzaren 6rako aurkeztu beharko dira. Informazioa gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

LAN ESKAERA
Aste bukaeretan, adineko jendea zaintzeko eskeintzen naiz: Uztaila eta abuztu osoan ere ahaliko nuke. Izaskun dut izena, hauxe nire tfno zbkoa. 653998035.

Irurtzango Udalak Oinarriko gaitasun digitalen hastapenetan ikastaro ezberdinak antolatu ditu

ORDAINTZEKO ATALAK:

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

dohainik: Hiru ikastaro ezberdin egingo dira Irurtzango kultur etxean burutuko dira hirurak. Bat enplegu-eskatzaleei zuzenduta maiatzaren 9tik 20ra, goizeko 9:15tik 13:15era, bigarrena migratzaleei zuzenduta, maiatzaren 6tik 20ra, atsaldako 16:00etatik 20:00etara eta hirugarrena pertsona erretiratuak zuzenduta, maiatzaren 9tik 13ra, atsaldako 16:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago 948 012 012 tfnoan. Izen emateak 848 42 760 tfnoan.

Familientzako tailerrak: Osasun mentalaren sustapena seme-alaben artean (Irurtzun eskualdeko Gizarte Zerbitzuek eta Uharthe Arakilgo Guraso elkarteak antolatuta). Uharthe Arakilgo udaletxean burutuko da apirilaren 28an, maiatzaren 5ean eta 12an (ostegunetan), 17:00etatik 18:30era. Tailerrean parte hartzeko izena eman behar da apirilaren 25a baino lehen, ssbirurtzun.izabala@gmail.com helbidera idatziz edo 948 600 694 tfnora deituz.

OHARRAK

Orreagako guduaren omenezko monumentuaren aldeko ekimena: Euskaldunek frankoen armada garaitu zuen 778an. Orreaga fundazioak garaipen haren historia memoria berreskuratu nahi du. Horretarako Orreagan Pabi Aldunate eskultorearen "Populus Vasconiae" eskultura jarri nahi dute. Hura gin eta jartzeko daru bil keta egiten hasi dira. 40.000 euro jasa nahi dituzte maiatzaren 31rako. Diru ekarpenak ES57 3008 0190 6846 1964 5924 edo ES35

3 0 3 5 0 1 3 9 7 1
1390021185 kontu korronteetan egin daitezke. Txartelarekin ere ordaindu daitezke www.orreaga-monumentua.eus webgunearen bidez. Han dago ekimenari buruzko informazio guztia.


Etxarri Aranatzeko kontsumilatzaileen Udal Bulegoa: Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak irabek hilabetero, lehenengo astelehenetan, 10:00etatik 13:00etara, Udaletxeko bigarren solairuan atentitzen du, aurretik hitzordua hartuta izan behar da derrigorrez. Dohaneko bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzen dute etxebizitzaz, aseguruak, komertzioak, gure kontsumoari buruz erlazioz atutako guztia, alegia. Hurrengo arreta egunak maiatzaren 2a eta ekainaren 6a izango dira. Hitzordua eskatzeko irabxera deitu 948 177 000 tfnoan, informazio gehiago www.consuidoresirache.com web orrian.

Altsasuko Basoixin gelditutako adarrak hartzeko jarraibide hauek bete behar dira: Udaletxean eskabidea aurkeztu beharko da maiatzaren 6a baino lehen. Eskabideak aztertu ondoren, eta eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera, dagokion egurra kentzeko baimenak emanen ditu udalak (baldintza hauek bete behar dituzte eskatzaleek; adinez nagusiak izatea, udal erroldan bizilagun gisa inskribatua egotea eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea).


iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

EGURALDIA ASTEBURUAN


Asteazkena, 13




Osteguna, 14




Ostirala, 15




Larunbata, 16



Igandea, 17



Astelehena, 18



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eus

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es



Inma Biurrun poeta eta Adyta Valdés pianojolea Ollokin egindako errezitak batean. UTZITAKOA

Erkuden Ruiz Barroso ARAKIL

Apirilaren 23an Liburuaren eguna izango da eta horren harira literatur ekitaldiak antolatuta dituzte hainbat herritan eta liburategitan. Arakilen, esaterako, poesia errezitak musikatu egingen dute apirilaren 23an bertan, larunbatean, 18:00etan, Ihabarko Kontzeju etxean. Inma Biurrun poetak haren poesiatik ibilbidea egingen du, Adyta Valdés pianojoleak musikarekin laguntzen duen bitartean.

Poesia Biurrunen "pasioa" da. "Hitzaren maitemindu bat naiz eta, ez hori bakarrik, hitzaren boterearekin konbentzita nago. Ez bakarrik poesian, arlo guztietan boterea duela sinisten dut. Gutun batek ongi argudiatuta botere handia du, elkarrizketa batetik zerbait oso handia atera daiteke". Hitzaren edertasunean eta funtzionaltasunean sinisten du ere. Poesia, beraz, sentimenduen eta ideien komunikatzailea dela argudiatu du idazleak. "Ideologia asko egon daiteke ere". Bere azkenengo poemarioan, esaterako, emakumezko pertsonaiak eta memoria historikoa asko landu du. "Ezagunak ez diren emakumezkoak azaleratu nahi izan ditut, eta memoria historikoa balorean jarri behar dela uste dut".

"Poema bat egiten dudanean emozionantea eta unibertsa izatea eskatzen diot". Lehenengo etapa batean poesiaren bidez sentimenduak kanalizatzen zituela azaldu du, baina orain bere

Poesiaren botere komunikatzailea

Inma Biurrun erronkak gustatzen zaizkion poeta da. Hitzaren boterean sinisten du eta horregatik "eramaten nauen" poesia egitea gustatzen zaio. Adyta Valdés pianojolearekin poesia errezitak musikatu egingen du lhabarren

poesia "xumea baina sakona" izatea bilatzen du, "xumea ez duelako sinple esan nahi". "Benetazkoa" izan behar du.

Biurrun poesia tailer batean dago eta bertan ariketa desberdinak egitea eskatzen diete. "Bat-batean esaten dizute poema *fiesta* bat sortu behar duzula, estilo bat dela, eta bitxia da sortzeko zirikatzen zaituztelako, baina gero konturatzen zara zuk dagoeneko baduzula horrelako poema bat eta, orduan, hobetzen duzu, azaleratzen duzu...". Horren adibidea da *Amor odio* poema. "Espektatiben apurketa teknika-

"POEMA BAT EGITEN DUDANEAN EMOTIZIONANTEA ETA SAKONA IZATEA BILATZEN DUT"

rekin eginda dago. Asko gustatzen zait teknika hori. Jendeak espero du gai jakin bati buruz izatea eta gero espektatibak apurtzen ditut, eta beste gauza baten inguruan ari zara". Telefono mugikorren inguruko poema bat da.

Poesia

"Niri poesia gustatzen zait, baina gehien gustatzen zaidana da nora eramaten nauen poesiak". Biurrunek meta-poesia egiten duela esan daiteke ere, izan ere, bere lana antolatzen hasi denean izenburu "politak" sortu zaizkio: "Emakumezkoei buruz ari direnak *Femenino singular* deitu diet, bidaiei buruzko poemak *Viajar en verso*...".

Arakilen eskainiko duen errezitalean "denetarik" egon dela esan du poetak. "Hasiera batean emakumezkoen poemak eramatea pentsatu nuen, baina anitza-

goa izanen da". Haren poesiatik ibilbide bat egingen du. Aste honetan zehar Adyta Valdés pianojolearekin elkartuko da eta bien artean errezitatu dituen poemak begiratu dituzte. "*Femenino singular* bildumatik egonena dira, haikuak egonena dira, bidaiei ingurukoak... Eta ez ditut maitasun poema asko sortzen, baina agian baten bat sartuko dut ere".

Poesia errezitak bat poeta batek bere poemak edo poeta ospetsuen lanak aurkezteko ekimen bat da. Kasu honetan, Biurrunek bere poemak errezitatu ditut, eta, gainera, musikarekin lagunduta

"BATZUETAN JENDEA HARRITZEN DA ERABILITAKO ERREKURTSO ETA HITZEKIN"

egotea gustatzen zaio. Arakilen Valdésen laguntza izanen du, Nafarroako Dantza Eskolako piano laguntzailea dena. Baina idazleari erronkak gustatzen zaizkio eta aurrekoan bermut poetiko batean parte hartu zuen, tronpetarekin lagunduta. "Egia esan, beldurra nion. Kuadrilla bazkari batean sortu zen, poema bat errezitatzeko esan zidaten eta tronpetajolea ondoan zegoeenez, jotzen hasi zen". "Puntazo" bat izan zela esan du, tronpetarekin errezitak bat egitea "oso arraroa" delako.

Errezital musikatua

Normalean, musika klasikoagoa edo lirikoagoa erabiltzen da poesia ekimenetan. Biurrunek, esaterako, biolontxeloarekin edo pianoarekin egin ohi ditu. "Normalean oso lasai joaten naiz errezitalek, gehien bat bakarrik errezitatu behar dudanean". Musikariekin joaten denean, aldiz, "urduriago" joaten da. "Adytarekin dagoeneko konfiantza handia diogu elkarri, eta berarekin lasai joaten naiz. Baina biolontxeloarekin joaten naizenean ere pixka bat urduri joaten naiz, eta tronpetarekin...". Hala ere, hurrengo urratsa emateko prest dago: "Bermuta ikusi ondoren lagun batek esan zidan saxofoia ikasten ari dela eta datorren urterako laguntzeko prest egonena dela".

"Denetarik pixka bat egiten dugu. Esaterako, tronpetarekin egin nuenean tronpetajolea tabernan zegoen eta ni urrunean nengoan errezitatzeko, baina ondoren nire ondoan jarri zen eta sordina jarri zion. Biak batera aritu ginen eta gero nik errezitatzeko nuen eta berak erantzuten zuen". Poesia errezitak musikatueta poemak eta musika piezak uztartzeko dira, batera aritzen dira edo bata besteari erantzuten diotela azaldu du Biurrunek. "Adytarekin hori egiten dugu. Batzuetan bera hasten da musikarekin eta gero nik jarraitzen dut, bestetan ni hasten naiz hitzarekin eta behin utzi zidan poema ia oso irakurtzen eta bukaeran hasi zen pieza bat jotzen bukatu zuen arte". Musikariek sortutako piezak eta abesti ospetsuak tartekatzen dituzte ere.

Errezitala bukatzean "solasalditxo" egitea gustatuko litzaiotke poetari. "Batzuetan jendea harritzen da erabilitako literatura errekursoekin edo hitzekin, eta poesiak ere baditu helburu didaktikoak".



Muga Zero taldeko kideak. UTZITAKOA

"Zenbait belaunaldik bat egingo dute kontzertuan"

OIER LARUNBE LIZARRAGA ETA IBAI LANZ BETELU MUGA ZERO TALDEA

Duela urte eta erdi inguru sortu zuten taldea. Hasieran etxe batean entseatzen zuten, eta orain lokalera pasa dira. Apirilaren 30ean egingen dute taldearen debuta

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA
Lakuntzar talde murriztu batek baino ez du Muga Zero herriko talde berriaren doinuak entzuteko aukera izan. Duela pare bat aste lokal batera mugitu ziren, baina sortu zirenetik herrian entseatzen zuten, botikaren itxaron uneak alaituz. Mustutze ofiziala apirilaren 30ean egingen dute, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean, The Guilty Brigade taldearekin egingen duten kontzertuan. Oier Larunbe Lizarraga taldeko baxujolea da, eta Ibai

Lanz Betelu gitarrajolea. Haiekin batera Ander Gasko baterajoleak eta Joni Zapra abeslariak eta gitarrajoleak osatzen dute laukotea.
Aurretik beste talderen batean jo duzue?

"ORAINGOAN DENBORA GEHIAGO IZAN DUGU ETA GURE HAMAIIKA ABESTI SORTU DITUGU"

Ibai. Ander talde batean zegoen eta hor ikasi zuen bateria jotzen. Musika eskolatik dator, baina bertan zerbait ikasten duzu, eta gero zure estiloa garatzen duzu. Berak metalean egin zuen. Larunbe eta biok Enbajada taldean egon ginen, hor elkar ezagutu genuen. Joni Zapra Behin betiko taldean egon zen. Urte dezentente egon da geldirik, baina musikaren mundura itzultzea lortu dugu.
Askok kostatu zitzaizuen konbenzientzia?

I. Ez. Nire aldamera da eta musikarekiko konexioa bagenuen. Pandemia garaian ez ginenean herritik ateratzen edo parrandarik egin, hemengo pintxo poteak indarra hartu zuen eta elkar ikusten genuenean esaten zidan zerbait egin behar genuela. Gogoratzen nionean esaten zidan hitz egingo genuela, eta gero berriz motibatuta egin behar genuela. Bost hilabete inguru egon ginen horrela, eta, azkenean, egun batean gelditu ginen eta hortik hasi ginen.

Horrela sortu zen taldea?

O. Taldearen nukleoa izan zen. Gero sartu ginen Gasko eta biok.
Zein da zuen estiloa? Hasieratik markatu zenuten?

I. Betidanik egin duguna. Punk rock? Ez dakigu zehazten, baina hortik ibiliko da.

O. Bai, baina ez ditugu etiketak gehiegi gustuko.

Musika eskolan ikasitakoak zarete edo dena zuen kabuz ikasi duzue?

O. Nik musika eskolan gitarra klasikoa ikasi nuen, hortik elektrikoa hartu nuen eta gero baxua.

I. Nik akordeoia ikasi nuen eta urte pila bat egon nintzen. Ez dakit nazkatu nintzen edo zer, baina bukatu ondoren ia ez nuen jotzen, eta gitarra elektrikoa bat hartu nuen. Nire kabuz ikasi nuen.

Baina esperientzia taldean jotzen hartzen da.

O. Etxean jotzea garrantzitsua da, baina taldean jotzea ere oso garrantzitsua da.

Noiztik ez zarete oholtza batera igotzen?

I. Iturmendiko sanmigeletan eta Larraonan; bi kontzertu jarraian izan genituen. Taldea bukatu behar zen, eta hgori izan zen bukaera.

O. 2019ko maiatzetik.

Nolakoa izanen da oholtzara bultzatze hori?

O. Orain arte bertsioak jo ditugu eta oraingoan denbora gehiago egon gara prestatzen eta gure abestiekin aterako gara. Hamai-ka abesti sortu ditugu. Horregatik pixka bat urduri gaude.

I. Ea jendearen gustukoak diren.
Beraz, zuek sortu dituzue abestiak? Nolakoa izan da prozesua?

"PUNK ROCK INGURUAN IBILTZEN GARA, BAINA EZ DITUGU ETIKETAK GEHIEGI GUSTUKO"

I. Gure sortze prozesua da lehenengo musika sortzea eta gero letra. Inprobisatzen hasten gara, eta egun batean sortzen zaizkigu ideia pila bat, beste egun batean ezer ez.

O. Arazo gehien eman dutena, agian, letrak izan dira. Musika nahiko erraz ateratzen da. Letrak sortzen blokeoak egon dira, bu-ruari bueltak ematea, askotan ez genekien zer jarri, isilik gelditzen ginen... Baina, azkenean, aurrera egin dugu.

Zeri buruz hitz egiten duzue?

I. Gai sozialak. Ideiak bagenituen; zeri buruzko abestiak egin nahi genituen bagenekien, eta azkenean ia hamaika abesti desberdin atera dira.

O. Saiatu gara aniztasuna ematen eta bi abesti edo gai berdina ez izaten.

Zertan inspiratzen zarete?

I. Entzuten dugun musikak inspiratzen gaitu asko: La Polla Record, The Toy Dolls, Barricada, Gatillazo...

Zenbat entseatu duzue?

O. Asteetan bitan, eta azkenengo astetan hirutan. Bi ordu inguru.
Udalaren lokal batean entseatzen duzue.

I. Bi aste inguru daramatzagu hemen. Orain arte nire etxean egon gara entseatzen, eta bertan egotean ia herri osoan entzuten zen. Gainera, batzuetan leihoa irekitzen genuen, eta jendea pasatzen zen. Ordu egokietan jotzen genuen. Baina ikusten genituen aurreko espaloian haurrak eserita, edo farmaziara joaten zen jendea, itxoiten zegoela, guri entzuten geratzen zela ere.

Zer espektatiba dituzue?

I. Gure helburua oraintxe da pixka bat aurrezte eta diskoa grabatzea. Printzipioz hori da helburua. Gero ikusiko dugu. Gauzak ahalik eta hoberen egiten saiatu.

O. Ez ditugu kristoren espektatibak jarri. Gehien bat guregatik egiten dugu, gustatzen zaigulako.

Disko formatuan aterako duzue?

I. Bai, diskoa. Gustatzen zaigu euskarri fisikoan izatea.

O. Gero plataforma digitaletan jarri beharko dugu ere.

Zer espero duzue kontzertuarekin?
O. Lakuntzako jendea, gure ingurukoa, motibatuta dago. Belaunaldi guztitako jendea etorriko da.

I. Izan ere, Gaskok 18 urte bete ditu, Larunbek 24 beteko ditu, nik 28 eta Jonik 40 inguru...

"Natura denon artean zaindu behar dugu"

Blanca Ilundain Etxeberrria irurtzundarrari zaindari deitzea "gehiegi" iruditzen zaio, baina horrela deitu diete Plazaolako Bide Berdea zaintzeaz arduratzen diren pertsonen. Bidea mustu zutenetik bertatik paseatzen dute ia egunero.

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

1 Plazaolako zaindaria zara. Zer esan nahi du horrek?

Kategoria hori gehiegi esatea da. Jubilatutako ginenetik ia egunero ibiltzera joaten gara senarra eta biok. 2019. urtean Plazaolako bidea ireki zuten, eta oso irten-bide ona izan zen Irurtzundongoen-tzat batez ere Covid-agaratik perimetro itxieragatik; ibiltzeko aukera ematen du. Ia egunero ibiltzen ginenez Lekunberriko turismo bulegoko zuzendariak ikusten gintuen eta esan zigun ea zaindari izan nahi genuen. Baietz esan genuen, baina zaindari hitza... gehiegi esatea da. Gertakariak, inzidentziak eta abar jakinarazi behar ditugu. Hori egiten dugu, besterik ez. Baita jendea Plazaolara joateko animatu ere.

2 Beraz, bidea nola dagoen kontrolatu behar duzue?

Kontrolatu hitz itsusia da. Ikusi behar dugu dena ongi dagoen, besterik gabe paisaia eta bidea bera begiratzen joan. Baina ez kontrol oso sutsua. Forman mantetzeko paseatzera joaten garenean, eta bidetik jende asko pasatzen denez, txirrindulariak,



Blanca Ilundain Etxeberrria Irurtzundongo Plazaolako 'zaindaria'. UTZITAKOA

txakurrak eta abar, zerbait lekuz kanpo baldin badago abisatu behar dugu: toki bat oso zapalduta, adar bat gehiegi ateratzen dela... Horrelako gauzak komunikatzen ditugu. Horretarako aplikazio bat sortu dute.

3 Zertan datza aplikazio hori?

Oraindik probetan dago. Trail Gazers BID deitzen da eta Nasubinsak, Nafarroako Turismo bulegoak eta Lekunberriko turismoak landu dute. Geolokalizatzaile bat da. Erabiltzeko oso erraza da.

4 Ikastaro bat egin zenuten, ezta?

Latasan. App horretan agertzen da zein gertakari den, arrisku txikia, ertaina edo handia duen eta hiru argazki atera daitezke. Bertan geolokalizatuta gelditzen da eta zuzenean haiek ikus dezakete. Han bertan praktika bat egin genuen.

5 Erabili duzue?

Nik pertsonalki ez dut ezer sartu. Badago Lekunberri bikoite bat dagoeneko frogak egin dituen. Momentuz aplikazioa proba egoeran dago.

6 Eta inzidentziarik jaso dituzue?

Egunkarian zaindariak gine-la irakurri zutenek, jendeak esaten digu tarte batean agian behategi bat jarri behar dela edo beste batean hesitxoren bat jarri behar dela. Eta egia da, askotan pentsatu dugu guk ere; basotik zoaz eta bat-batean bukatzen da, bai zapak bukatzen dira eta paisaia erabat aldatzen da. Hor behategitxo bat jar daiteke. Baina hori ez da inzidentzia; proposamen bat da. Bidea oraindik ez da guztiz trinkotu eta bazegoen zuhaitzen baten sustraiaren bat asko ateratzen zena, eta txirrindularientzako oztopo bat da.

7 Ez du lan handirik suposatzen.

Inongo lanik. Ez dugu pentsatzen zer egongo den, zer aurkituko dugun edo gaizki egongo denik ere. Bide oso transitatuak dira, eta pixka bat keka hori izan behar dugu. Denon artean zaindu behar dugu, ez da bakarrik pertsona batek edo bik egin behar duten lana. Natura guztiona da, eta ditugun bideak eta baliabideak eta abar denok zaindu behar ditugu, mantendu

dauden bezala edo, posible bada, hobetu.

8 Bidean zabor asko aurkitzen duzue?

Tarte horretan hiru udalek dute ardura: Irurtzun, Arakil eta Imotz, eta zabor handiren bat ikusten badugu bertako udalari jakinarazten diogu. Leku batzuetan errepi-dea goian dagoenez, latak botatzen dituzte, gasoil latak eta abar. Udalek ere belarra kentzen dute...

9 Bestela, zer moduz dago bidea?

Oso ongi dago. Merez du. Irurtzundik Sarasaino dagoen bidea okerrekoa dela uste dugu, Irurtzundik Latasaino baino. Enpresa desberdinek egin dute eta zorua trinkoagoa da Latasako bidean. Ibaiek sarraskiak egin zituen eta oraindik konpondu behar dute, baina bestela bidea oso ongi dago. Jende asko pasatzen da. Zubi berri bat egin zuten ere eta horrek ematen du aukera Irurtzundiko arrantzaleen bidearekin bat egiteko, ibaiaren ertzean joaten den, aizpa baten magaletik joaten den bide ederra. Plazaolako guztiak merezi du, baina nik gehiago Irurtzun-Latasa ezagutzen dut.

10 Bost kilometroak egiten dituzue?

Bost eta bost, hamar. Jubilatutak gaude eta Latasan gelditzeko aukera dugu. Pintxo bat, eta buelta.

11 Mustu aurretik, nondik paseatzen zenuten?

Mustu aurretik ez geunden jubilatuta. Momentu egokienean izan zen. Badaude bide oso politak hemendik joaten ere: bi ibaiak, Arakil eta Larraun, zeharkatu, Etxarrendik eta Itsaspetritik pasa...

Apirilaren 14tik 24ra

OPORRETARA GOAZ

gk
DISEINUA ETA
 KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu